


# ZAZPITIK BAT



SD EIBARen 2026ko ABONATUEN KANPAINA



# AURKIBIDEA

## 1

### EGUTEGIA

## 2

### 2026KO KUOTAK

## 3

### ABONUEN BERRITZEA

## 4

### BERTARATZEA

- 4.1 Zer ulertzen da bertaratzeatzat?
- 4.2 Zer kopuru da partiden %50a eta %90a edo gehiago?
- 4.3 Nola utzi zure abonua?

## 5

### ABANTAILAK

## 6

### EMAKUMEEN ABONUA

## 7

### OHIKO GALDERAK

## 8

### KONTAKTUA



EGIN ZAITEZ BAZKIDE

1/7

WWW.SDEIBAR.COM



# 1.

## EGUTEGIA

### ABONUEN BERRITZE-KANPAINA

#### Abendua 25

| AL | AS | AZ | OG | OR | LR | IG |
|----|----|----|----|----|----|----|
| 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  |
| 8  | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 |    |    |    |    |

#### Urtarrila 26

| AL | AS | AZ | OG | OR | LR | IG |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    |    | 1  | 2  | 3  | 4  |
| 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |    |

URTARRILAK 2:

20. jardunaldia

SD EIBAR – CD MIRANDÉS

URTARRILAK 24: (Berretsi gabe)

23. jardunaldia

SD EIBAR – UD ALMERÍA

ABENDUAK 22:

Abonatuaren atari pribatuan 2025eko bertaratzeen zenbaketa eta horri dagokion 2026ko kuotaren argitalpena.

ABENDUAK 22, 23, 24, 26, 29, 30 eta 31:

ABONATUEN kudeaketak: deskontuak eskuratzea, zenbaketaren inguruko erreklamazioak, ordainketa zatitua eta datuen aldaketa.

URTARRILAK 2:

Banku-helbideratzea.

URTARRILAK 7, 8 eta 9:

Lehentasuna duten eserlekuen aldaketak: adingabeak elkartzea eta estali gabeko eserlekuak (1-2-3 ilarak).

URTARRILAK 12, 13, 14, 15 eta 16:

Lekualdatzea (abonu guztientzat).



# 2.

# KUOTAK

## 2026

### KATEGORIA ETA GUNEEN ARABERAKO PREZIO-TAULAK

#### ONARRIZKO KUOTEN EGUNERAKETA

SD Eibar-ek 2026ko kuotak aurkeztu ditu, azken kanpainetako kuotetikiko %10eko igoyerarekin.

Azken denboraldietan SD Eibar-ek kuotak bere horretan mantendu baditu ere, aurtengo ekitaldian %10eko igoera aplikatu da, neurri batean inflazioak eta KPlaren gorakadak eragindako egoera ekonomiko orokorrari erantzunez.

Ondorioz, irizpide orokor gisa, 2027. urtetik aurrera SD Eibar-ek kuotak eguneratu ahal izango ditu KPlaren igoyeraren arabera.


#### BERTARATZEA SARITZEN JARRAITUKO DA

SD Eibar-ek abonatuena bertaratzea eta/edo abonatuaren lagapena saritzen jarraituko du, oinarrizko kuotaren gaineko %5eko eta %10eko deskontuen bidez.

| Kategoria                                                                                                                                          | Gunea                        | Kuota | BERTARATZEA eta LAGAPENA +%50 %5eko deskontua | BERTARATZEA eta LAGAPENA +%90 %10eko |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|-------|-----------------------------------------------|--------------------------------------|
| <br>HELDUA<br>23-64 urte bitartean<br>2003 aurrekoa             | ERDIALDEA                    | 396 € | 378 €                                         | 360 €                                |
|                                                                                                                                                    | A GUNEA                      | 352 € | 336 €                                         | 320 €                                |
|                                                                                                                                                    | B GUNEA / ATZEKALDEAK        | 297 € | 284 €                                         | 270 €                                |
| <br>HOBARITUA<br>65 urte baino gehiago<br>Deskontu sozialarekin | ERDIALDEA                    | 259 € | 247 €                                         | 235 €                                |
|                                                                                                                                                    | A GUNEA                      | 204 € | 194 €                                         | 185 €                                |
|                                                                                                                                                    | B GUNEA / ATZEKALDEAK        | 143 € | 137 €                                         | 130 €                                |
| <br>GAZTEAK<br>13-22 urte bitartean<br>2004-2013                | ERDIALDEA                    | 264 € | 252 €                                         | 240 €                                |
|                                                                                                                                                    | A GUNEA                      | 226 € | 215 €                                         | 205 €                                |
|                                                                                                                                                    | B GUNEA / ATZEKALDEAK        | 160 € | 152 €                                         | 145 €                                |
| <br>HAURRAK<br>0-12 urte bitartean<br>2014 ondorengoa           | ERDIALDEA                    | 176 € | 168 €                                         | 160 €                                |
|                                                                                                                                                    | A GUNEA                      | 138 € | 131 €                                         | 125 €                                |
|                                                                                                                                                    | B GUNEA / ATZEKALDEAK        | 72 €  | 68 €                                          | 65 €                                 |
| <br>FAMILIA-HARMAILA<br>11-12 Ateak                             | Heldu 1 + haur 1             | 336 € | 320 €                                         | 305 €                                |
|                                                                                                                                                    | Heldu 1 + 2 haur edo gehiago | 374 € | 357 €                                         | 340 €                                |
|                                                                                                                                                    | 2 heldu + haur 1             | 600 € | 572 €                                         | 545 €                                |
|                                                                                                                                                    | 2 heldu + 2 haur edo gehiago | 671 € | 641 €                                         | 610 €                                |



### FUTBOL ZELAIAREN MAPA





# 3. BERRITZEA

## 2026KO ABONUEN BERRITZEA



### 3.1

#### ABONUEN BERRITZEA

- SD Eibar-en 2026ko abonuen berritzea automatikoki egingo da.
  - Azken urteetan %95etik gorako berritze-tasa izan denez, jarraipena berezkozat jotzen da; hau da, abonatuak kontraktorik adierazten ez badu, berritzea onartutzat emango da.
- Urtarrilaren 2an egingo da banku-helbideratutako kobrantza.
  - Banku-erakundearen arabera eta jaiegunak kontuan hartuta, baliteke kobrantza ondorengo egunetan islatzea.

\*Bajak: abonua berritu nahi ez bada, aldeztu aurretik Abonatuaren Arretan jakinarazi beharko da, eta baja behar bezala formalizatu, baja-dokumentua sinatuta.

### 3.2

#### LEIALTASUN-DESKONTUA

- 2026ko ekitaldi honetan, berriro ere bertaratzeen eta abonu-askapenen zenbaketan oinarritutako deskontu-sistema aplikatuko da.
- Bertaratzeen eta abonu-askapenen historikoa abonatuaren atari pribatuan kontsulta daiteke.

### 3.3

#### BONIFIKATUTAKO KATEGORIAK

- 65 urtetik gorako abonatuak automatikoki sartzen dira bonifikatutako kategoria honetan.
- Langabezia-egoeran eta/edo gizarte-pentsioa jasotzen dutela betetzen eta egiaztatzen duten abonatu helduentzat deskontuak mantenduko dira.

Kategoria hau eskuratzeko, egoera egiaztatzen duen agiri bidezkoa aurkeztu beharko da; esaterako, langabezia-egoeran daudenentzat azken hilabeteko lan-bizitza eguneratua, edo izaera sozialeko pentsioa jasotzen dela egiaztatzen duen edozein agiri.

Dokumentazioa aurkezteko epea abenduaren 31n amaitzen da.

### 3.4

#### INTERESIK GABEKO ORDAINKETA ZATITUA

- Abonua interesik gabe zatika ordaintzeko bi aukera daude.
- Urteko zenbatekoa 3 edo 5 kuotatan banatzen da.
  - 3 kuotatan zatitutako ordainketa: ordainketak urtarrilean, martxoan eta maiatzaren egingo dira. 100 €-tik gorako abonuentzat aplikagarria.
  - 5 kuotatan zatitutako ordainketa: ordainagiriak urtarrilean, otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzaren igorriko dira. 300 €-tik gorako abonuentzat aplikagarria.
- Ordainketa zatitua eskatzeko epea abenduaren 31n amaitzen da.

### 3.5

#### LEKUALDATZEAK

- Klubak urte amaieran lekuz aldatzeko aukera eskaintzen du. Nahi zuten lekualdatzea egin ezin izan duten abonatuentzat, kirol-denboraldia amaitu ondoren (ekainean), berriro irekiko da beste epe bat lekuz aldatzeko.
- Urtarrilaren 7an, 8an eta 9an, 1., 2. eta 3. ilaretako abonatuak lehentasuna izango dute lekuz aldatzeko. Era berean, lehentasun hori mantenduko da familia-berrantolaketa egin nahi duten abonatuentzat ere (nahitaezkoa da prozesuan abonatu infantil bat egotea).
- Urtarrilaren 12an, 13an, 14an, 15ean eta 16an, abonuguztientzat irekiko da, oro har, lekuz aldatzeko epea.
- Lekualdatzeak iriste-ordenaren arabera kudeatuko dira, eta Orsaixanen soilik, aurrez aurre.
- Lekuz aldatu nahi duten guztien txartelak aurkeztu beharko dira.



# 4.

## BERTARATZEA

### BERTARATZEA SARITZEN JARRAITUKO DA

2027ko ekitaldiari begira, SD Eibar-ek bertaratze- eta abonu-askapenengatikoko deskontuak mantenduko ditu, eta horiek zuzenean 2026an futbol-zelaira egindako bertaratzeen arabera izango dira.

2026ko urtariletik aurrera, SD Eibar-ek lpuan eserlekua betetzen duten edo, bestela, beren lekua klubari lagatzen dioten abonatuak bertaratzeak eta abonu-lagapenak zenbatzen jarraituko du.

Zenbaketa liga erregularreko partiduen gainean egingo da, eta kanpoan geratuko dira balizko Errege Kopako edo Play-Offetako partidak.

Abonatuak 2026ko partidaren %90ean edo gehiagotan bertaratzen bada edo bere eserlekua lagatzen badu, 2027ko kuota %10eko deskontua izango du. Horrela, portzentaje horretara iristen diren pertsonak azken urteetan indarrean egon den kuota bere horretan mantenduko dute.

$$+ \%90 = 10\%$$

2026AN BERTARATU  
EDO BERE ESERLEKUA  
LAGATZEN BADU

2027AN DESKONTUA

Abonatuak 2026ko partidaren %50ean edo gehiagotan bertaratzen bada edo bere eserlekua lagatzen badu, 2027ko kuota %5eko deskontua izango du.

$$+ 50\% = 5\%$$

2026AN BERTARATU  
EDO BERE ESERLEKUA  
LAGATZEN BADU

2027AN DESKONTUA

Abonatuak 2026ko partidaren gutxienezko %50ean bertaratu edo bere eserlekua lagatzen ez badu, ez zaio inolako deskonturik aplikatuko 2027ko kuotetan.

$$- 50\% = 0\%$$

2026AN BERTARATU  
EDO BERE ESERLEKUA  
LAGATZEN BADU

2027AN DESKONTUA

## 4.1

### ZER ULERTZEN DA BERTARATZE MODURA

SD Eibar-ek abonatu baten bertaratzea zenbatzeko, honako hiru egoeretako bat gertatu beharko da:

- Abonatuak lpuan bertaratzea.
- Abonatuak bere txartela beste pertsona bati lagatzea, eta pertsona hori lpuan bertaratzea.
- Abonatuak bere eserlekua SD Eibar-i lagatzea.

## 4.2

### ZENBAT DA PARTIDEN %50A ETA %90A EDO GEHIAGO?

Kontuan hartu beharreko partida kopuru zehatza 2026-2027 denboraldiko egutegi ofiziala argitaratzen denean ezagutuko da. Abonatuaren atari pribatuan argitaratuko da deskontu bakoitza eskuratzeko beharrezkoa den partida kopurua.

## 4.3

### NOLA UTZI ZURE ABONUA?

- Klubari lagapena.** bonatuek beren eserlekua Klubari utzi ahal izango diote hainbat bideren bidez, partida baino 24 ordu lehenago arte, eta eserlekua berreskuratzeko aukera izango dute soilik oraindik saldu ez bada. Klubari egindako lagapena bertaratze gisa zenbatuko da, sarrera saldu den ala ez alde batera utzita; era berean, salmenta gertatuz gero, ez da inolako zenbatekorik itzuliko. Klubari lagapena abonatuaren atari pribatuan, telefonoz eta App-aren bidez (berria) egin ahal izango da.

- Hirugarren bati lagapena.** Abonatuak beren eserlekua beste edozein pertsonari utzi ahal izango diote. Kudeaketa hau APParen bidez soilik egin ahal izango da.

**BERRIA**

7A7PITIK  
BAT

# 5. ABANTAILAK

1

GIZONEZKOEN LEHEN TALDEAK IPURUAN JOKATZEN DITUEN LIGA ERREGULARREKO PARTIDAK.

2

EMAKUMEZKOEN LEHEN TALDEAK IPURUAN JOKATZEN DITUEN LIGA ERREGULARREKO PARTIDAK.

3

ESKARI HANDIKO PARTIDETAN, ETXEAN ZEIN KANPOAN JOKATZEN DIREN NEURKETETARAKO SARRERAK EROSTEKO LEHENTASUNA.

4

IPURUAN JOKATZEN DIREN PARTIDETARAKO SARREREN DESKONTUA.

6

IPURUA TOUR ETA MUSEOAREN BISITA GIDATUETARAKO DESKONTUA.

5

%10EKO DESKONTUA SD EIBAR HUMMEL BILDUMA OFIZIALEAN, DENDA OFIZIALETAN.

7

0 ETA 13 URTE BITARTEKO ABONATU INFANTILENTZAT HASIERAKO HAMAIAKAKOAREKIN ARGAZKIA.

8

AREITIOKO KIROL-HIRIAN JOKATZEN DIREN HARROBIKO PARTIDA GUZTIETARAKO SARBIDEA.

# 6. F LIGA

## EMAKUMEZKOEN LEHEN TALDEKO ABONUA

Ipuruak gure emakumezkoen lehen taldeak etxean jokatzeko dituen F LIGAko partida guztiak hartzen ditu:

- × Txarteldegia Ipuruko 14. atearen ondoan dago.  
(Irekiera: *partida hasi baino ordubete lehenago – Iparraldeko Tribuna*)
- × Harmailen barruko tabernak zabalik egongo dira, janaria eta edaria eskainiz.
- × Ipuruan jokatzeko diren emakumezkoen lehen taldeko partidak kirol-instalazioaren barne-araudiaren mende daude.
- × Klubeko abonatuak bazara, lehen taldeak etxean jokatzeko dituen partida guztietarako doako sarbidea izango duzu.

Abonatuak ez bazara, aukera dago, halaber, gure emakumezkoen lehen taldeak Ipuruan etxean jokatzeko dituen partidetak soilik abonatzeko.

Emakumezkoen abonuek bi kategoria dituzte, adinaren arabera:

| Kategoria      | Kuota |
|----------------|-------|
| OROKORRA       | 60€   |
| HAURRAK (1-12) | 30€   |

Abonuen berritzea automatikoki egingo da. Klubak abonatuarekin harremanetan jarriko da banku-kontuaren datuak eskatzeko, eta urtarilaren 2an kuota abonatu guztiei kobratuko zaizkie banku-helbideratzearen bidez.

# 1

Emakumezkoen abonua izateak harmailara sartzeko eskubidea ematen du, baina ez du eserleku zehatzik esleituta.

# 2

Futbol zelaira sartzeko ezinbestekoa da abonua fisikoki aurkeztea; ez da onartuko argazkien eta/edo fotokopien bidezko sarbidea.

# 3

Zure abonua lortzeko, ohiko ordutegian Orsaixanera jo dezakezu, Abonatuaren Arretarako gunera.

# 7. OHIKO GALDERAK

1

## ABONATU-TXARTELA GALDU DUT, LAPURTU DIDATE EDO EZIN DUT AURKITU. ZER EGIN BEHAR DUT?

Abonuaren titularra klubeko bulegoetara joan beharko da NANarekin, txartelaren bikoiztua eskuratzeko. Galera edo galdu izanaren kasuan, bikoiztuak 5 €-ko kostua izango du. Lapurreta izan bada, bikoiztua doan emango da, salaketaren kopia aurkezten bada.

3

## PARTIDA HASTEAR DAGO ETA EZIN DUT NIRE ABONATU-TXARTELA AURKITU.

Orsaixango Abonatuaren Arretarako bulegora joan beharko duzu; identifikatu ondoren, zure txartelari dagokion sarrera emango dizute, zure eserlekura sartu ahal izateko. Bestela, abonua mugikorrean deskargatu eta horrekin ere sartu ahal izango zara.

## ZER KUDEAKETA EGIN DITZAKET ABONATUAREN ATARIAN?

Abonatuaren atari pribatuan (abonados.sdeibar.com), kudeaketak eta kontsultak egin ahal izango dituzu; halaber, zure datu pertsonalak eta harremanetarako datuak aldatu, eserlekua klubari utzi, lehentasunezko sarrerak deskontuarekin erosi, eta zure bertaratzeak eta/edo lagapenak kontsultatu.

## NOLA LORTU DEZAKET ABONATUAREN ATARIRA SARTZEKO PINA?

Saioa hasteko pantailan PINa lortzeko jarraibideak aurkituko dituzu; PIN hori zure jaiotze-datarekin lotutako zenbakiez osatuta dago.

5

## ABONATU GISA, ZER KUDEAKETA EGIN DITZAKET APPTIK?

SD Eibar-en APPa etengabe garatzen ari da. Zure abonua QR formatuan deskargatu eta zure gailu mugikorreko diru-zorro digitalean (wallet-ean) gorde ahal izango duzu. Horrela, futbol zelaia sartzeko balio bera izango du abonua fisikoarekin bezala. Gainera, zure eserlekua klubari utzi edo hurbileko pertsona bati laga ahal izango diozu.

## NIRE ABONATU-TXARTEL FISIKOAREN ARGAZKIAREKIN ESTADIORA SARTU AL NAITEKE?

Ez. Argazkiak (baita fotokopiak ere) ez dira onartzen sartzeko baliozko agiri gisa. Txartel fisikoa erabili beharko da, edo, bestela, QR formatuko abonua digital ofiziala.

7

## 13 URTE BAINO GEHIAGO BADITUT, HAUR-ABONUAREKIN ESTADIORA SARTU AL NAITEKE?

Haur-abonua adin handiagoko pertsonen erabili ahal izango dute, baldin eta klubak hala iragartzen badu bere kanal ofizialen bidez. Ohikoa da haur-abonua erabiltzea baimentzea gaueko ordutegia duten partidetan edo astean zehar jotzen diren neurketetan.

## MUGIKORTASUN URRIKO PERTSONENTZAKO ABONUA.

Mugikortasun urriko pertsonentzako eserlekuetako abonua eskaera indibidualaren bidez soilik eskuratu ahal izango da, socios@sdeibar.com helbidearekin harremanetan jarritz. Mugikortasun urriko pertsonentzako eserlekuak Tribuna Nagusiko 12. ilaran daude kokatuta.

## ATAL HONETAN JASOTA EZ DAUDEN BESTE ZALANTZA BATZUK DITUT

Jar zaitez gurekin harremanetan azalpenekin email bat bidaliz socios@sdeibar.com helbidera, eta ahalik eta azkarren erantzuten saiatuko gara.

2

4

6

8

# 8. KONTAKTUA

## ASTELEHENETIK OSTIRALERA

### ABONATUEN ARRETARAKO BULEGOA



#### Aurrez aurreko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:00etara.

\*Ipuruan partidarik ez dagoen jardunaldietan, ostiraleko ordutegia 09:30etik 13:30era izango da.



#### Kokapena:

Orsaixan denda. Ipuru futbol zelaiko 1. eta 2. ateen artean.



Telefonoa: 943 20 18 31 (Luzapena 1)



Emaila: socios@sdeibar.com

### PARTIDA-EGUNEKO ORDUTEGIA



Abonatuaren Arretarako Bulegoa partida hasi baino 2 ordu lehenago irekiko da, eta neurketa hasi arte egongo da zabalik. Futbol zelaiko ateak partida hasi baino ordubete lehenago irekiko dira.

\*Futbol zelaiak ez du kontsignarik; hala ere, partida-egunean haurtxoen orgak uzteko zerbitzua dago 14. atean.



